



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urtarrilaren 3a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tuterako Udalarari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tuterako Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tuterako Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Tuterako Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** 2016ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
 - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).
 - II.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).
- III.** Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (8. or.).
 - III.1. 2016ko aurrekontu bateratuaren beteazpenaren egoera-orria (8. or.).
 - III.2. 2016ko aurrekontu-emitza bateratua (9. or.).
 - III.3. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (9. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua (10. or.).

III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2016an (11. or.).

IV. Oharrak eta gomendioak (12. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n (12. or.).

IV.2. Alderdi orokorrak (14. or.).

IV.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (15. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (16. or.).

IV.5. Barne-kontrola (16. or.).

IV.6. Langileak (17. or.).

IV.7. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).

IV.8. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital-transferentziengatiko gastuak (20. or.).

IV.9. Inbertsioak (22. or.).

IV.10. Aurrekontuko diru-sarrerak (24. or.).

IV.11. Hirigintza (26. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (28. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (33. or.).

Eranskina: Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA


Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Tuterako Udalaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orrria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Tuterako Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Tuterako udalerriak 215 km²-ko azalera du, eta 35.170 biztanle dauzka 2016ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren menpeko erakundearen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



Sektore horiek honako hauek osatzen dituzte:

- Administrazioaren Sektore Publikoa, Udalak berak eta bere erakunde autonomoak, Uren Batzarrak, osatua. 2016an Udalak ez dio inolako ekarpenik egin Uren Batzarrari.

- Enpresen Sektore Publikoa. Udala Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoaren jabetza osoa dauka. Udalak, 2016an, 1.048.510 euro eman dizkio entitate horri.

2016an, bateratuta aurkeztu ziren Udalaren eta haren erakunde autonomoaren eta enpresa-entitatearen kontuak. Bateratze horren aurrekontu-datu nagusiak honako taula honetan azaltzen dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2016)	Aitortutako eskubideak (2016)	Langileak 2016-12-31n
Udala	32.623.092	34.457.988	306
Uren Batzarra	2.750.077	3.325.172	16
Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoa*	1.408.556	1.475.454	4
-Bateratzearen doitzeak	-1.048.510	-1.048.510	
Guztira	35.733.215	38.210.104	326

*Bateratzearen eraginetarako, Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoak, kontabilitate-esparruari jarraituz, informazio finantzarioa aurrekontu-informazio eta -terminologia publiko bihurtzen du.

• Fundazioen Sektore Publikoa. Bi fundaziok osatzen dute; haien 2016ko datuek honako emaitza ekonomiko hauek erakusten dituzte:

Fundazio publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2016-12-31n
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	212.492	209.077	3.414	5
María Forcada Fundazioa	29.868	109.966*	-80.098	-

*Kopuru horretatik 88.072 euro amortizazioei dagozkie.

Udalak 2016an 115.000 euro eman dizkio Dédalo Fundazioari eta 15.000 euro, berriz, María Forcada Fundazioari. Kopuru horiek diru-sarreraren ehuneko 50 eta 54 egiten dute, hurrenez hurren.

Aipatutako enpresa-entitate publikoak eta fundazioek dagokien auditoria-txostena aurkezten dute, kanpoko profesionalak egina. Horietan guztietan, iritzia aldekoa da.

Udalak, gainera, patroi gisa parte hartzen du honako fundazio hauetan: Miguel Eza, Real Casa de Misericordia eta Manuel de Castel-Ruiz.

Udala, halaber, honako hauetako kidea da:

- Erriberako Mankomunitatea, zeina hondakinak biltzeko zerbitzuaz, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoaz eta lazareto zerbitzuaz arduratzen baita.
- UHUNen Tuterako Ikastetxe Elkartuaren Partzuergoa.
- Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa.
- Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER).
- "Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.

Oro har, azken ente horien zerbitzuek honako gastu hauek eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak, 2016an
Erriberako Mankomunitatea	46.134
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa	33.317
Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER)	48.017
"Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.	14.000

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak	Errentamendua
Administrazio zerbitzu orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean	X				
Musika Eskola	X				
Hirigintza	X				
Lorategiak				X	
Hiri hondakinak			X		
Ur-hornidura		X			
Garraio publikoa				X	
Liburutegia	X				
Ludoteka	X				
Kontsumitzailearen arreta zerbitzua	X				
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X				
Kirolak	X				X
Kirol jardueren kudeaketa				X	
Udal Kiroldegia	X				
Babestutako enplegu soziala	X				
Diru-bilketa exekutiboa				X	
Familien Arreta Zentroa	X				
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X				

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren epigrafean, 2016ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia azaltzen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat ematen dugu. Azkenik, laugarrenean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, konklusio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2016ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Jarduketa honen emaitzak Udaleko alkateari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Tuterako Udaleko alkateak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek, Ganberak haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko, bere erakunde autonomoko, Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoko eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. 2016ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Tuterako Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

- Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Osoko bilkurak 2017ko maiatzaren 31n onetsi zuen kontu orokorra.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

- Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritziak funtsa izateko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

- Iritziaren oinarria, salbuespenekin

a) Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 1993tik ez dela jarduneko langilerik afiliatu sistema horretan. Pentsioak direla-eta dauden konpromisoen balorazio finantzario eta aktuarialan, 2013ko ekitaldian egindakoan¹, haiek 59.464.748 eurokoak direla zenbatesten da, monte-pioa indarrean dagoen aldirako.

b) Diruzaintzako gerakinari behar baino 641.201 euro gutxiagoko balioa eman zaio, zeren eta ez baita bertan sartu desbideratze metatu negatiboa, 270/1998 Foru Dekretuaren 96.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Halaber, gordailuen saldo bat badago, 83.457 euro egiten duena, eta horretatik gutxienez ere zati bat kontuan hartu beharko litzateke biltzen zailak diren eskubideak kalkulatzeko. Zenbatespen hori ezin izan dugu egiaztatu; horrenbestez, ezin izan dugu egoera horretan duen eraginaren zenbatekoa eman.

- Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako Udalaren kontu orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

- Iritziaren oinarria, salbuespenekin

a) 2016an, guztira 12 zerbitzu-kontratuk, 5.521.456 euroko fakturazio-bolumenarekin – Udalaren beraren 2. kapituluko gastu guztien ehuneko 42 egiten du horrek–, indarraldiaren gehieneko epea gainditu dute, eta ez da garaiz izapidetu horiei estaldura egokia emateko lizitazio prozedurarik. Hori gutxienez ere 2013ko, 2014ko eta 2015eko ekitaldietatik gertatu izan da, eta Ganberak behin eta berriz adierazi izan du azkeneko txostenetan.

b) Geltoki intermodalaren erabileraren kudeaketarako ADIFekin sinatutako akordioa Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2005eko uztailaren 18ko epaiaren bidez antolamendu juridikoaren aurkakoa dela deklaratu bada ere, 2016an 86.870 euro ordaintzen jarraitu da kudeaketa horren truke. Kontu-hartzaileak behin eta berriz adierazi izan du egoera hori kasuko eragozpen-oharren bitartez.

- Iritzia

Gure iritziz, "Betetzeari buruzko iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginengatik ez bada, Udalaren 2016ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

¹ Lehenengo alegazioari jarraituz aldatu da ekitaldia.

III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2016ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala, erakunde autonomoa eta enpresa-entitate publikoa).

III.1. 2016ko AURREKONTU BATERATUAREN BETEARAZPENAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako kredituak	Aldaketa	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	% Bete-takoa	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1 Langile-gastuak	16.697.506	-98.172	16.599.335	15.751.738	95	15.540.671	211.067	1
2 Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	13.621.627	195.817	13.817.444	13.162.372	95	11.165.337	1.997.035	15
3 Finantza-gastuak	440.298	-62.736	377.562	331.665	88	331.665	0	0
4 Transferentzia arruntak	2.344.795	237.401	2.582.197	1.702.361	66	1.431.146	271.214	16
6 Inbertsio errealak	1.237.200	1.361.863	2.599.063	1.883.209	72	1.806.311	76.897	4
7 Kapital-transferentziak	425.000	0	425.000	319.800	75	316.972	2.828	1
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0		0	0	
9 Finantza-pasiboak	2.582.071	0	2.582.071	2.582.071	100	2.582.071	0	0
Guztira	37.348.498	1.634.174	38.982.672	35.733.216	92	33.174.174	2.559.042	7

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	% Betetakoa	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1 Zuzeneko zergak	12.709.850	0,00	12.709.850	12.816.081	101	12.083.773	732.308	6
2 Zeharkako zergak	820.000	0,00	820.000	655.024	80	628.602	26.422	4
3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	8.698.713	20.000	8.718.713	9.524.137	109	8.206.660	1.317.477	14
4 Transferentzia arruntak	12.585.000	69.947	12.654.947	12.819.226	101	12.591.901	227.322	2
5 Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	1.999.935	35.000	2.034.935	2.180.164	107	1.945.647	234.517	11
6 Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0		0	0	
7 Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa	535.000	1.266.570	1.801.570	215.472	12	215.472	0	0
8 Finantza-aktiboak	0	29.169	29.169	0	0	0	0	
9 Finantza-pasiboak	0	213.488	213.488	0	0	0	0	
Guztira	37.348.498	1.634.174	38.982.672	38.210.104	98	35.672.058	2.538.046	7

III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2015	2016
+ Aitortutako eskubideak	39.106.893	38.210.104
- Aitortutako betebeharrak	45.228.490	35.733.216
= Aurrekontu-emaiza	-6.121.597	2.476.889
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	2.700.000	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	641.201
+ Diruzaintzako gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	9.891.166	0
+ Ekitaldiko diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak		
= Aurrekontu-emaiza doitua	1.069.570	3.118.090

III.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2016ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2015	2016
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	3.154.819	3.066.286
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	2.592.628	2.538.046
(+) Diru-sarrerak: Ixkitako ekitaldiak	4.087.396	3.793.963
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	369.132	261.329
(+) Gastuen itzulketak	12.021	6.021
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-326.585	-260.015
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-3.579.773	-3.273.059
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	5.403.523	5.111.404
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.507.442	2.559.042
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	911.765	214.042
(+) Diru-sarriren aurrekontua	89.764	90.528
(+) Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	400.211	425.265
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.533.593	1.839.593
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-39.252	-17.066
(+) Diruzaintzako funts likidoak	3.657.362	5.371.819
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	1.408.659	3.326.701
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.408.659	3.326.701

III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2015	2016
A) Ibilgetua	120.756.224	119.439.153
1 Ibilgetu materiala	67.892.351	95.156.661
2 Ibilgetu ez-materiala	215.747	406.374
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	5.296.311	6.494.303
4 Herri-ondasunak	17.375.324	17.375.324
5 Finantza-ibilgetua	6.491	6.491
C) Zirkulatuzailea	10.928.325	12.123.416
7 Izakinak	182.553	141.193
8 Zordunak	7.049.157	6.593.338
9 Aplikatzeko dauden partidak	39.252	17.066
10 Finantza-kontuak	3.657.362	5.371.819
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		
Aktiboa, guztira	131.684.549	131.562.569

Pasiboa

Deskribapena	2015	2016
A) Funts berekiak	95.993.482	99.113.372
1 Ondarea eta erreserbak	26.439.623	29.243.008
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	3.318.717	3.442.253
3 Kapitaleko diru-laguntzak	66.235.143	66.428.111
B) Arrisku eta gastuetarako hornidurak	3.579.773	3.273.059
4 Hornidurak	3.579.773	3.273.058
C) Epe luzeko hartzekodunak	26.353.954	23.793.673
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	26.353.954	23.793.673
D) Epe laburreko hartzekodunak	5.757.340	5.382.463
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	5.430.755	5.122.448
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzean	326.585	260.015
Pasiboa, guztira	131.684.549	131.562.569

III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2016AN

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2015	2016	Deskribapena	2015	2016
3 Hasierako izakinak	187.416	182.553	3 Bukaerako izakinak	182.553	141.192
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak	84.736	91.745	70 Salmentak	6.140.984	6.361.770
61 Langile-gastuak	13.991.316	14.113.685	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	4.193.383	4.311.938
62 Finantza-gastuak	419.004	331.665	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	10.779.599	10.621.016
63 Tributuak	922	792	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.784.044	1.809.068
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	12.811.285	12.942.341	74 Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	85.651	83.868
65 Gizarte prestazioak	1.956.096	1.764.731	75 Ustiapenerako diru-laguntzak		
66 Ustiapenerako diru-laguntzak			76 Transferentzia arruntak	11.996.347	12.805.226
67 Transferentzia arruntak	1.748.431	1.702.360	77 Kapitalaren gaineko zergak	840.380	1.041.019
68 Kapital-transferentziak	375.033	319.800	78 Bestelako diru-sarrerak	2.077.661	1.003.805
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	3.289.984	3.077.350	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	11.958	14.055
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	3.228.336	3.665.935	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)		
Guztira	38.092.560	38.192.960	Guztira	38.092.560	38.192.960

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2015	2016	Deskribapena	2015	2016
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)			80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	3.228.336	3.665.935
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)			82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	9.071	47.867
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)		271.577	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	81.309	28
89 Etekin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	3.318.717	3.442.253	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)		
Guztira	3.318.717	3.713.830	Guztira	3.318.717	3.713.830

IV. OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, honako hauek jaso ditugu: kudeaketa arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu behar harko lituzkeen gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barnekontrola hobetze aldera.

Atal honetan, gainera, txosteneko salbuespenei buruzko azalpen gehigarria jaso dugu.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 37,3 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 1,6 milioi euro –ehuneko 4,38– handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 38,9 milioikoak dira. Aldaketa horiek, funtsean, eragina dute kapital-transferentzien kapituluari, diru-sarreraren eta inbertsio errealean aurrekontuan eta gastuen aurrekontuan.

Aitortutako betebeharrak 35,7 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 92ko betearazte-maila izan dute.

Aitortutako eskubideek 38,2 milioi euro egiten dute, eta betearazte-maila ehuneko 98 da.

Gastuaren izaerari eta finantzaketa-iturriari begiraturaz gero, honako hauek izanen lirateke:

Gastuaren izaera	%	Finantzabidea	%
Langileak	44	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	42	Transferentziak	34
Inbertsioak eta kapital-transferentziak	6	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	6
Finantza-zama	8	Zorduntzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2016rako aurrekontuaren betearazpenari buruzko datu ekonomiko bateratuak eta 2015ekoarekiko alderaketa:

	2015	2016	Aldearen %, 2016/2015
Aitortutako betebeharrak, guztira	45.228.490	35.733.216	-21
Likidatutako eskubideak, guztira	39.106.893	38.210.104	-2
Gastuen betearazpena (%)	96	92	-2
Diru-sarreraren betetzea (%)	83	98	22
Ordainketak (%)	94	93	-1
Kobratutakoa (%)	93	93	0
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	31.011.791	30.948.136	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	30.592.786	30.616.471	0
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.392.677	2.203.009	58
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	12.824.022	2.582.071	-80
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	36.406.893	37.994.633	4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	22.396.713	22.995.242	3
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	0	215.472	
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	31	36	16
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	72	82	14
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	4.002.425	5.058.959	26
Aurrekontu-emaizta doitua	1.069.570	3.118.090	192
Aurrezki gordina	5.814.107	7.378.162	27
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	13.243.027	2.913.736	-78
Aurrezki garbia	-7.428.919	4.464.425	-160
Finantza-zamaren adierazlea*	36	7	-81
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa*	16	19	19
Zorpetze-ahalmena (%)	-20	11	-155
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.408.659	3.326.701	136
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.408.659	3.326.701	136
Zor bizia	25.437.017	22.854.947	-10
Zorpetze-maila	70	60	-16
Zor bizia biztanleko	719	649	-10
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	4	3	-25

*Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

2016an, Udalak eta haren menpeko enteek 35,73 milioi euro gastatu dituzte, aurreko ekitaldian baino 9,5 milioi gutxiago –horrek ehuneko 21 gutxiago egiten du– eta 38,21 milioi euroko diru-sarrerak izan ditu –0,9 milioi gutxiago dira–; zenbateko hori ehuneko bi txikiagoa da 2015ekoa baino. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago 2015eko ekitaldian mailegu baten 9,9 milioiko amortizazio aurreratu bat izan zela. Mailegu hori Nafarroako Gobernuak eman zuen kultur etxea finantzatzeko, eta 12 milioi eurokoa zen. Egitate hori jada 2014-2015 ekitaldiaren alderaketa-azterketan ageri zen, zenbatekoak eta adierazleak ez distortsionatzearen. Inguruabar hori bera 2016ko ekitaldia eta 2015ekoa alderatzen dugunean gertatzen da; hori dela eta, informazio hori garbituko balitz, gastu-igoera bat agertuko litzateke.

Gastu arruntak modu ez adierazgarri batez jaitsi dira; diru-sarrera arruntek, berriz, ehuneko lau egin dute gora. Diru-sarrera arrunten barruan, tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko hiru igo dira.

Aurrekontu-emaizta doitua 3,1 milioikoa da, eta aurrekontu-saldo ez-finantzarioa, berriz, 5,1 milioi eurokoa da. Bi magnitude horiek bilakaera positibo bat erakusten dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Kontuan hartu beharra dago ezen aipatu dugun amortizazio aurreratuaren ondorioz, aurrezki garbiarekin lotutako adierazleak eta aurreko ekitaldiko zorpetze-ahalmenak aurreko ekitaldikoekin alderatzen baditugu, informazio ez-homogeneoa ateratzen dela ikusiko dugu. Oroitidazkian, au-

rrekontu-likidaziotik ateratako adierazleez gainera, eragiketa horren eraginak zuzentzen dituzten beste batzuk ere aurkezten ditugu.

Finantza-zamaren adierazlea (arestiko zorpetze-maila) ehuneko zazpi da, eta haren aurrezki gordinak diru-sarrera arruntetan egiten duen portzentajea (arestiko zorpetze-muga) ehuneko 19 da; horrenbestez, zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikorik badauka, ehuneko 11koa.

Diruzaintzako gerakina, guztira, 3,3 milioika da –gastu orokorretarako bideratutako zenbateko bera– eta 2015ekoarekin alderatuta ehuneko 136 egin du gora; horrek esan nahi du etorkizuneko ekitaldietan gerakin horren kargura aurrekontu-aldaketak egiteko finantza-ahalmena handitu duela.

Epe luzeko zorra 22,8 milioikoa da, eta ehuneko hamar egin du behera 2015ekoarekin alderatuta; zor horrek 649 euro egiten du, guztira, biztanle bakoitzeko, eta entitatearen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 60 da; portzentaje hori, izan ere, zorpetze berria hartzeko mugatzen duen diru-sarrera arruntan ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Datu horien arabera, jo daiteke Tuterako Udalak finantza-egoera bateratu kaudimenduna duela.

IV.2 ALDERDI OROKORRAK

Entitatearen aurrekontua eta betearazte-oinarriak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen hasiera batez 2015eko abenduaren 23an. Behin jendaurrean jartzeko izapidea eginda, behin betiko onetsi zen 2016ko otsailaren 9an, eta NAOan argitaratu zen 2016ko otsailaren 23an.

Egin den berrikuspenaren ondorioak ondoko alderdi hauek dira:

- Aurrekontuari 2015eko abenduaren 31 eta gero eman zitzaion behin betiko onespina.
- Aurrekontuko likidazioaren egoera-orria –horren atalak dira aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina– bateratuta aurkezten da, Castel Ruiz enpresa-entitate publikoa ere barne duela. Gure iritziz, aurrekontuko egoera-orri horren aurkezpenean ez da nahitaezkoa enpresa-entitate publikoa sartzeko, aipatutako entitateak arau nagusi duen kontabilitate finantzarioaren esparru pribatuan ez baita jasotzen aurrekontuaren likidazio-orria.

Entitate horren jardura Udalaren transferentzien bitartez finantzatzen da, % 75 hain zuzen, eta neurri txikian, berriz, ematen dituen zerbitzu publikoen prezioen bitartez. Horri dagokionez, enpresa-entitate publikoen ezaugarri finantzario nagusietako bat denez haien finantzaketaren berezitasuna, nagusi duten entitatearen transferentzien bitartezkoa baita, berritik planteatu beharko litzateke, ekonomikoki Udalaren mendekoak baitira, ea hori ote den formatu juridiko egoki-ena zerbitzu publiko horren kudeaketarako, eta kasua bada, 2009ra arte bezala, erakunde autonomoa izan beharko ote litzatekeen berriz ere.

- Udalak egindako aurrekontu-aldaketei dagokionez, aldaketa guztiek ez dituzte jasotzen araudian bildutako baldintza eta kontsiderazio guztiak.
- Aurrekontuz kanpoko zordunei dagokionez, berriz, “Aurrekontuz besteko diru-sarreraren formalizazioa” izaneko kontuak itxieran 59.562 euroko saldoa dauka; saldo horrek, duen izaera dela-eta, kitaturik egon beharko luke.
- Aurrekontu-emaizta behar baino 22.305 euro gehiago dago baloratuta, aipatutako zenbatekoa duen desbideratze metatu negatiboa jasotzearen ondorioz.
- Erakunde autonomoari dagokion diruzaintzako gerakinaren egoera-orrian, bateratzearen aurrekoan, bilketa zaileko eskubideen zenbatespen bat hartzen da kontuan, Uren Batzarrak garatutako irizpide berariazko batekin². Irizpide hori aplikatzeko, gure iritziz, aurrekontu-betearaztearen oinarrien bermea eduki beharko litzateke.

² Seigarren alegazioari jarraituz aldaturiko paragrafoa.

• Eranskinetan, “2016ko urteko kontu bateratuen txostena” izeneko dokumentu bat jasotzen da, lehendakariak eta Kontu-hartzaileak sinatua. 272/1998 Foru Dekretuak, 232. arauan, jasotzen du Kontu-hartzailearen oroitidazkia eta txostena egotearena, eduki eta norainoko ezberdina duten bi dokumentu gisa.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontua behin betiko onestea eta argitaratzea araudiak ezartzen dituen epeen barruan.*
- *Castel Ruiz enpresa-entitate publikoari dagokionez, aztertzea ea haren egungo araubide finantzarioak antolamendu-figura horren erabilera justifikatzen duen.*
- *Aurrekontu-aldaketak izapidetu eta onestea tokiko aurrekontu-esparruak ezarritako terminoetan eta baldintzekin.*
- *Aurrekontuz kanpoko zordunak aztertu eta garbitzea diru-bilketa zaileko eskubideak kalkulatzekoan, eta haiek diruzaintzako gerakinaren egoera-orrian sartzea.*
- *270/1998 Foru Dekretuaren terminoetan, aurrekontu-emaitzan eta diruzaintzako gerakinean zuzen islatzea finantzaketaren desbideratzeak.*
- *Betearazpen-oinarriak erregulatzea diru-bilketa zaila edo ezinezkoa duten eta kobratzeko dauden eskubideak zenbatesteko irizpidea, arau orokorretik aldentzen direnean.*

IV.3 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren beteetzea aztertu dugu, haren hiru arau nagusiei dagokienez.

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza positiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	5.058.959
Doikuntzak	-378.511
Finantzaketa-ahalmena	4.680.447

Gastuaren araua: 2016ko gastu zenbakarria 81.735 euro txikiagoa da 2015eko ekitaldikoa baino, ehuneko 1,8 baino gutxiago; horrenbestez, gastuaren araua betetzen da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2015	Aitortutako betebeharrak, 2016
Gastu ez-finantzarioa, guztira	31.503.835	31.989.169
Baimendutako aldearen tasa	1,80%	
2016ko gastu ez finantzario zenbakarria	32.070.904	

Finantza-iraunkortasunaren araua: 2016ko abenduaren 31ko zor bizia 22.854.946 eurokoa da. Zenbateko horrek 2016ko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 60 egiten du. Haren muga, nolana ere, diru-sarrera arrunten ehuneko 110ekoa da.

Hornitzaileei ordaintzeko epea. Adierazle horren batez besteko balioak honako hauek izan dira:

Entitatea	2016
Udala	-9,81
Uren Batzarra Erakunde Autonomoa	-2,54
Castel Ruiz Enpresa-entitate Publikoa	-22,75
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, guztira	-9,93

Horrenbestez, Udalak bete egin du printzipio hori, zeren eta ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketarako ezarritakoa baino (30 egun naturaleko epea).

Egindako azterketan, honako gabeziak aurkitu ditugu:

- Udalak ez ditu Dédalo eta M. Forcada fundazioak sartu administrazio publikoen sektorean, eta, horrenbestez, ez ditu sartu bateratzearen perimetroan.
- Finantzaketaren ahalmenari/beharrari dagokionez, ez da doikuntzarik egin interesen sortza-pena dela eta; 15.450 eurokoak direla zenbatetsi da.
- Gastuaren arauari dagokionez, ez dira egin funts finalistekin finantzatutako gastuetan aurreikusitako doikuntza guztiak. Doikuntza horien multzoak, Udalaren datuekin alderatuta, 1.037.119 euroan zenbatetsitako aldea suposatzen dute.

Hala eta guztiz ere, aipatutako doikuntzak kontuan hartuta, entitateak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzen jarraitzen du.

Gure gomendioak:

- *Dédalo eta María Forcada fundazioak sartzea bateratzearen perimetroan.*
- *Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-egonkortasuneko arau fiskalen kalkuluan aurreikusitako doikuntza guztiak egitea 2/2012 Legean eta tokiko sektoreari aplikatzekoak zaizkion Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiaren eta Nafarroako Gobernuaren gidaliburuaren arabera.*

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak aplikatzen dira, zerbitzu-kontratuen kontratazio-araubideari eta hirigintzako ondare-kudeaketari dagozkiena izan ezik. Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

IV.5. BARNE-KONTROLA

Kontu-hartzailatzaren barne-kontrolari dagokionez, betearazpen-oinarriek eginkizun hirukoitza ezartzen dute: kontu-hartzailatza, finantzen kontrola eta eraginkortasunaren kontrola, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak ezarritako moduan.

Udalan eta Uren Batzarrean barne-kontrola kontu-hartzailatzaren eginkizunaren bitartez baik ez da egiten. Kontu-hartzailatzak ez du finantzen edo eraginkortasunaren kontrolik egin.

“Castel Ruiz” enpresa-entitate publikoa dela-eta finantzen kontrola egiten da, Kontu-hartzailatzaren zuzendaritzaren pean, oinarrietan ezarri bezala. Entitatearen auditoria kanpoko profesionalak egiten dute.

Gure gomendioak:

- *Kontu-hartzailatzak eta Uren Batzarrak Udalan finantzen eta eraginkortasunaren kontrola egitea, tokiko aurrekontu-esparrua betez.*

IV.6. LANGILEAK

Langileen gastua 15,75 milioi eurokoa da; hau da, 2016an sortutako gastu guztien ehuneko 44 eta gastu arrunten ehuneko 50.

2015eko ekitaldiarekin alderatuta, oro har aitortutako betebeharrak ehuneko bat egin dute behera, ezertan kendu gabe artikuluen mailan egin diren aldaketa aipagarrienak; hona xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2015	2016	
Goi-karguak	118.333	100.414	-15
Kabineteetako bitarteko langileak	182.907	147.595	-19
Funtzionarioak	6.875.560	6.808.055	-1
Lan-kontratudun langileak	3.716.375	3.841.475	3
Bestelako langileak	0	12.097	
Gizarte-zamak	4.944.130	4.842.101	-2
1. kapitulua, guztira	15.837.305	15.751.738	-1

Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko maiatzaren 2an onetsi zuen behin betiko plantilla organikoa, eta maiatzaren 31ko NAO n argitaratu zen. Plantilla organikoa dela eta, errekurtsioa aurkeztu zen. Aurrerago, Nafarroako Administrazio Auzitegiak, 2017ko martxoaren 20an, partzialki deuseztatu zuen, udal antolamenduko lau arlo administratiboetarako teknikari-koordinatzailearen lanpostuari dagokionez.

2016ko plantilla organikoak 341 lanpostu dauzka; horietatik, guztira 115 lanpostu daude hutsik, hau da, plantillaren ehuneko 33, honako taula honetan jasotzen den bezala:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Udala				
Funtzionarioak	269	179	90	72
Lan-kontratudun finkoak	35	25	10	10
Behin-behinekoak	3	2	1	-
Uren Batzarra				
Funtzionarioak	25	15	10	-
Lan-kontratudun finkoak	1	1	-	-
Behin-behinekoak	-	-	-	-
Enpresa-entitate publikoa				
Funtzionarioak	6	4	2	-
Lan-kontratudun finkoak	1	-	1	1
Behin-behinekoak	1	-	1	-
Guztira	341	226	115	83

2016ko abenduan, 2016ko lan publikoaren eskaintza onetsi zen, 15 lanpostutarako, eta 2017ko urtarrilean argitaratu zen NAO n. Bestetik, aldi baterako kontrataziorako 18 deialdi izapidetu dira: horietatik sei lanpostu hutsak betetzeko dira; gainerakoak, berriz, ordezkapenentarako eta aldi baterako behar jakin batzuetarako.

Egindako azterketan ikusi dugu loturarik ez dagoela nomen eta kontabilitatearen programa informatikoen artean; horrek neurri handi batean zailtzen ditu aurrekontu-egozpenaren lana eta informazioaren kontabilitate-tratamendua.

Udal plantilla organikoaren betearazpenerako arau osagarriek ezartzen dute lanaldia luza-tzeagatik osagarri bat esleitu behar zaiela, ehuneko bostekoa, informazio batzordeetako idazkari-eginkizuna betetzen dituzten langileei. Esleipen horretarako oinarria Lanpostuen Deskribapenerako eta Baloraziorako Azterlanaren Jarraipen Batzordearen erabaki bat da, zeina 2013ko urrian batera sinatu baitzuten udaleko talde politikoek, erakunde sindikalen ordezkariak eta udal teknikariak. Dokumentazioan jasota dago batzorde-bilerak ez direla arratsaldeko ordutegian egi-

ten; bada hori kontraesanean dago aipatutako osagarriaren espirituarekin, zeren eta ez bailitzateke oro har ezarritakoaz gorako lanaldi bat egiten ariko.

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla –salbu eta lanaldiaren luzapeneko osagarria, arestian aipatutako moduan– eta egindako atxikipenak eta deskontuak zuzenak direla.

Gure gomendioak:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeke eta egiaztatzeke, halaber, plantillako aldi baterako kontratuen kopurua zein den gaur egungo araudiaren testuinguruan.*
- *Langileen arloa kudeatzeko sistema bat ezartzea, aukera emanen duena aurrekontuen eta kontabilitatearen arloarekin integrazteke eta konektatzeko.*
- *Lanaldiaren luzapeneko osagarria berraztertzea, haren edukia araudi indardunaren arabera egokitzeke.*

IV.7. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 13,16 milioi euro egin dute 2016ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 37 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 43 egiten dute.

2015arekin alderatuta, 155.321 euro handitu dira; horrek ehuneko bateko aldea erakusten du, honako xehetasun hauen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2015	2016	
Errentamenduak	91.597	97.986	7
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioak	3.621.182	3.541.393	-2
Materiala, hornidurak eta beste	9.129.966	9.318.187	2
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	136.352	181.064	33
Argitalpen-gastuak	27.954	18.157	-35
Administrazio publikoentzat egindako lanak		5.584	
Guztira	13.007.050	13.162.371	1

Udalaren gastuen honako lagin hau fiskalizatu da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2016)
Kontserbazio- eta birmoldatze-lanak	345.500
Udal eraikinak garbitzea	1.197.522
Energia elektrikoa	1.528.788
Instalazioen mantentzea	252.784
Hornidurak	219.005
Aseguruek estaltzen ez dituzten kalte-ordainak	104.684
Bestelako gastu askotarikoak	373.921
Herriko jaiak	306.242
Hirugarrenek egindako lanak	3.589.236
Guztira	7.593.993

• Gastuen lagin bat aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu ezen, oro har, gastuak justifikatuta daudela kasuko faturekin, eta zuzen kontabilizatu direla.

• Hala eta guztiz ere, gastu-bolumen handi bat detektatu dugu, 5.521.456 eurokoa, Udalaren beraren 2. kapituluko guztizkoaren ehuneko 42koa, zeinaren fakturazioa ez baitago oinarrituta

kontratu indardunetan; izan ere, haren amaiera-aldia 2013ko, 2014ko eta 2015eko ekitaldietan amaitu zen. Gastu horiek "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan adierazitakoak dira.

Aurreko zerbitzuengatik ordainketa-prozesua egin izan da ordainketetarako zerrenda arruntetan sartzeaz beste izapiderik egin gabe. Oraindik ere kontraturik egin gabe ematen jarraitzen diren zerbitzuengatik ordainketen izapidetzeak suposatuko luke aberaste bidegabea edo arrazoirik gabeko aberastea debekatzen duen printzipiora jotzea; horrenbestez, Administrazioak hirugarrenak egindako lanengatik kalte-ordaina ematera behartuta dago. Printzipio horren aplikazioa berariazko prozeduraren izapidetzean zehaztuta dago, eta hartan oinarrituta Administrazioak airtortzen ditu dagozkien betebeharrak eta ordainketa. Prozedura hori ez da fakturatutako zerbitzuetan gertatu.

Halaber, kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditenteak berrikusi dira; hona hemen datuak:

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Balio zenbatetsia, BEZa kenduta	Eskaintzak egin dituztenak	Urteko adjudikazioaren zenbatekoa, BEZik gabe
Eraikin publikoen garbiketa	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti Eskaintzarik onena	3.774.000	8	Nafarroako Administrazio Auzitegiak zuzenbidez erabat deusez deklaraturako adjudikazioa
Kirol jardueren kudeaketa	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behiti Eskaintzarik onena	341.983	2	81.882
Zezen-ikuskizunen kudeaketarako emakida	Emakida	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behiti Eskaintzarik onena	79.714	3	38.842

Kontratazio-espeditenteak direla-eta egin den azterketan, honako alderdi hauek adierazi behar ditugu:

Eraikin publikoen garbiketarako kontratua

2007ko ekitaldian, kontratu hori adjudikatu zen, eta lau ekitaldiko gehieneko iraupena izan zuen. 2013an, amaitu zenean, berriz ere lizitatu zen, eta eman gabe deklaratu zen. 2013-2015 aldian, aurreko adjudikazio-hartzaileak jarraitu zuen zerbitzua ematen, 2015eko ekainean lizitazio berri bat egin zen arte.

2015eko ekitaldian egin zen lizitazioa zuzenbidez deuseza zela deklaratu zuen Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak 2015eko ekainean, informazio jakin bat EBAOn ez argitaratzeagatik, formazko akatsak tarteko. 2015eko amaieran, zerbitzua berriz ere lizitatu zen, eta 2016ko apirilean adjudikatu zen. Adjudikazio hori gero deuseztatu egin zen, Nafarroako Administrazio Auzitegiak haren lizitazioa zuzenbidez deuseza zela deklaratu baitzuen 2016ko azaroan, gardentasunaren, berdintasunaren eta bazterkeria-ezaren printzipioak urratzeagatik; izan ere Auzitegiak ulertu zuen egindako argipenek kontratuaren funtsezko alderdiak ukitzen zituztela eta, horrenbestez, baldintza-orriaren aldaezintasuna urratzen zutela.

Udalak ez zuen epai horren aurkako errekurtsorik aurkeztu, eta 2017ko abuztuan kontratu berri bat lizitatu zuen.

Aurreko egitate horien ondorioz, 2013an kontratua amaitu zuen enpresak jarraitu du zerbitzua prestatzen.

Kontratu hori "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan adierazitakoetatik bat da.

Kirol jardueren kudeaketa

Kontratu hori, baldintza-orrietan, izapide aurreratuko espeditente baten gisara jaso da, 6/2016 Foru Legearen 43.1 artikuluan ezarritako moduan. Kontratu-esparruak sailkapen hori ematen die beren betearazpena izapidetzearen ondorengo ekitaldian hasi behar duten espeditenteei. Egungo

kontratua bat dator urte anitzeko gastu bat sortzen duen espediente batekin, zeina 2016ko ekitaldian bertan hasi baitzen; horrenbestez, egindako sailkapena ezin da aplikatu.

Zezen-ikuskizunen kudeaketarako emakida

Kontratu hori, zeina kontzesio-kontratu gisa sailkatu baita, herriko jaietara mugatzen da – luzapenak berriz balio du hurrengo ekitaldiko jai patronaletarako–, eta adjudikazio-hartzaileak egin beharreko bi jarduera mota biltzen ditu: alde batetik, publikoarentzako doako jarduerak egitea –funtsean, entzierroak–, zeinak argi tipifikatuta baitaude baldintza-orrian eta adjudikatutako prezioan jasotakoak baitira; eta, bestetik, prezio bat kobratzea eragin dezaketen jarduerak –zezen-plazako ikuskizunak–. Alderdi hori, baldintza-orrietan, kontratistaren eskubide baten gisara jasota dago, dagokion prezioa finkatzeko askatasuna eta guzti.

Kontratuan publikoari prezio bat kobratzeko aukera ematen duten jardueren prezioen zerrenda bat jasotzea ezertan kendu gabe, enpresak bere eskaintzan aurkeztutako bideragarritasun planean oinarrituta, espedientearen ez dago jasota Udalak kontratuaren araubide ekonomikoa dela eta egindako planteamendua, zeinaren arabera egokitu behar baitziren eskaintzak. Bestetik, alderdi hori baldintza-orrietan hobekuntzen atalean jaso da, nahiz eta ustiaketa-araubideak eta haren bideragarritasun ekonomikoak, kontzesio-kontratu baten funtsezko alderdi bat izateagatik, balorazio nagusiaren xede izan behar zuten.

Gure gomendioak:

- *Hirugarrenek eman beharreko zerbitzuei eta hornidurei kontratu-euskarri egokia ematen dioten lizitazio berriak izapidetzea.*
- *Adjudikazio prozedurak halako moduz kudeatzea non, ahal den neurrian, saihestuko baita prozedura deuseztatuko duten erreklamazioak aurkeztea.*
- *Kontratu-euskarriak gabeko betebeharrak hartu beharreko kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, Osoko Bilkurak edo, kasua bada, alkateak onetsi dezan.*

IV.8. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

Gastu hauek 3,07 milioi egin dute (“Castel Ruiz Kultur Etxea” enpresa-entitate publikoarentzako transferentziengatiko bateratzearen doikuntzak egin gabe). 2016an sortutako gastu guztien ehuneko zortzi egiten dute, eta transferentzia arruntan ehuneko zazpi eta kapital-transferentzien ehuneko bat dira.

2015ekin alderatuta, aldaketak honako hauek izan dira:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%) 2016/2015
	2015	2016	
Toki entitateei	46.134	127.469	176
Castel Ruiz Enpresa-entitate Publikoari	1.090.000	1.048.510	-4
Enpresa pribatuei	172.643	180.032	4
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.529.654	1.394.860	-9
Transferentzia arruntak, guztira	2.792.297	2.750.871	-1
Toki entitateei	-	-	-
Enpresa pribatuei	225.000	225.000	0
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	150.033	94.800	-37
Kapital-transferentziak, guztira	375.033	319.800	-15
Transferentzia bidezko gastua, guztira	3.167.330	3.070.671	-3

Honako hauek dira 2016an egindako transferentzia nagusiak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Castel-Ruiz	1.048.510
Etxez etxeko laguntzarako laguntzak	323.968
Jantoki sozialerako laguntzak	157.060
Garapenerako laguntzak eta diru-laguntzak	119.600
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	115.000

Berrikuspena honako partida hauen langin baten gainean egin dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Entitateentzako diru-laguntzak eta laguntzak	124.318
Garapenerako lankidetzarako diru-laguntzak	119.600
“UHUN-Tutera” Kalitatearen Kudeaketaren katedra	63.220
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	115.000
María Forcada Fundazioa	15.000
Transferentziak Castel Ruiz enpresa-entitate publikoari	1.048.510
RENFEren geltoki intermodalerako transferentziak	86.870
Etxebizitzak zaharberritzeko eta obra berriak egiteko laguntzak	94.800
Igerileku estaliak kudeatzen dituen enpresa	225.000
Guztira	1.892.318

Oro har, honako hauek egiaztatu ahal izan ditugu: gastuak zuzen baimenduta, erregistratuta, kontabilizatuta eta justifikatuta daude, eta ikusten da haien izapidetzean legezko araudia bete dela. Halaber, Kontu-hartzailetzaren arloak egiten duen barne-kontrolak zuzen funtzionatzen du Tokiko Gobernu Batzarrak emandako diru-laguntzen ordainketak egiteko orduan.

Hala eta guztiz ere, ondoko alderdiak nabarmendu nahi ditugu:

- Udalak, diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat onetsia badu ere, gabea honek aurreko ekitaldian egindako gomendioak 2016an betez, ez ditu betetzen tokiko gobernu batzarrari esleitutako jarraipena eta kontrola, aipatutako planeko 10. puntuak hori ezartzen duen arren.

- 2016ko ekitaldian, Udalak ez zuen diru-laguntzei buruzko ordenantzarik, baina baldintza hori bete egin da 2017ko irailean aipatutako ordenantza onetsi eta argitaratzearekin. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak emateko berariazko ordenantza batzuk badaude, nahiz eta haietako batzuk –bereziki, gizarte zerbitzuena– antzinakoak diren eta egungo premien arabera egokitu beharko lirartekeen.

- Entitateentzako laguntzei dagokienez, Diru-laguntzen buruzko Datu Base Nazionalean ez dira argitaratu ez deialdia, ez emandako diru-laguntzak, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikulua hori ezartzen duen arren.

- “UHUN-Tutera” kalitatearen kudeaketarako katedraren justifikazioa honako honetan oinarrituta dago: Tuterako Udalaren eta UHUNen arteko programa-kontratuan 2013-2017 aldirako eza-rritako adierazle eta helburu batzuk betetzea. Nafarroako Gobernuarekin berarekin sinatuta daukan finantzaketa-hitzarmenarekin gertatzen denaren antzera, finantzaketaren justifikazioan jaso egin beharko litzateke katedraren guztizko gastuetatik zeintzuk diren hautagarriak.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzen plan estrategikoa dela-eta aurreikusitako jarraipena eta kontrola egitea.*
- *Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean diru-laguntzetarako deialdi guztiak argitaratzea.*
- *Zaharkituta geratu diren ordenantzak berrikusi edo gaurkotzea.*

- *Hitzarmen berri bat onestea, zeinak justifikazioan jasoko baitu katedraren gastu guztietatik zeintzuk diren hautagarriak.*

IV.9. INBERTSIOAK

2016. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (2,59 milioi) ehuneko 72 bete da, 1,88 milioira iritsi baita; hain zuzen ere, ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bost.

2015ekin alderatuta, ehuneko 85 egin du gora, honako xehetasunena arabera:

	Aitortutako betebeharrak		2016/15 aldea (%)
	2015	2016	
Erabilera orokorrerako inbertsio berria	453.966	1.651.959	264
Zerbitzuen funtzionamendurako inbertsio berria	223.798	115.154	-49
Zerbitzuen funtzionamendurako birjarpeneko inbertsioa		23.477	-
Inbertsio ez-materialak	37.917	2.775	-93
Ondarezko ondasunetan eginiko inbertsioa	301.963	89.844	-70
Herri ondasunetan egindako inbertsioa	0	0	0
Guztira	1.017.644	1.883.209	85

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Huertas Mayoresko bidearen urbanizazioa	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	1.340.479	15	915.547
Queiles Ibaiaren estaldura konpontzea eta amaitzea	Obrak	Eskaintzarik onena Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	821.105	11	456.540
		Eskaintzarik onena			

Huertas Mayoresko bidearen urbanizazioa

Lan honen jatorria 2007ko bide-proiektu bat da, zeina Tuterako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasota baitago, bide-sistema orokor gisa, bai eta Unibertsitatearen plan sektorialean ere. Proiektu hori, 2016an bat egin eta gaurkotu ondoren, urgente bilakatu zen, hiriko eremu horren irtenbideko trafikoko trinkoari konponbidea emateko beharra zela eta, nagusiki autobideko bide bat itxi ondoren, besteak beste. 2016ko ekitaldiko izapidetzea posiblea izanen da Nafarroako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatuko delako, aurrekontu-aldaketa bat egin ondoren, kreditu berezi baterako gaikuntza ematearen bidez.

Honako hauek izan dira kontratuaren betearazpenari buruzko datuak (BEZik gabe):

	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Ziurtagiriak, guztira Obraren amaiera	% Desbideratzea
Udala + Uren Batzarra	1.261.501	861.558	905.791	5,1
Gasa	31.564	21.558	4.224	-80,4
Iberdrola	30.365	20.739	0	-100
Telefónica	17.049	11.645	0	-100
Guztira	1.340.479	915.547	910.015	-0,6

Espedientea maiatzaren 30ean lizitatu zen eta uztailaren 15ean adjudikatu zen, ehuneko 31,7ko beharapenarekin. Kontratua ezarritako epean bete da eta amaierako ziurtagiria adjudikazioaren zenbatekotik zertxobait behera dago, zehazki ehuneko 0,6 txikiagoa da; horrekin, beraz, arrazoiz betetzen dira aurrekontu- eta kontratu-aurreikuspenak.

Hala eta guztiz ere, ondoko gorabeherak nabarmendu nahi ditugu:

- Espediente honen izapidetzeak baldintza bat zeukan: aurrekontuan zenbateko osoa egotea. Adjudikazioaren unean baldintza hori bete bada ere, Udalak hasiera batean onetsitako aurrekontu-aldaketak egin beharko zen aurrez ekarpena egiteko konpromiso irmo bat oinarri hartuta, tokiko aurrekontuaren esparruaren baldintzetan.
- Espedientea kontratuaren izapidetze gisa kalifikatu izana, gure ustez, ez da zuzena, zeren eta kontratuaren betearaztea ez baita gertatu hurrengo ekitaldian, Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen 43.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Obra-kontratuaren zenbatetsitako balioa banatu eta honako eragin hau izan du:

	Lizitazioaren zenbatekoa
Udala	1.067.042
Uren Batzarra*	194.459
Gasa**	31.564
Iberdrola**	30.365
Telefónica**	17.049
Guztira	1.340.479

*Gero Uren Batzarraren aurrekontuari egotzi zaio hornidurako eta saneamenduko sareei dago-kien atalean.

**Proiektuko atal batzuei dagozkie, eta sareetan eragiten dute. Aipatutako enpresek hartu behar dituzte beren gain.

Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenak erabat lotzen du Udalak diru-laguntza lortzea barneko eskumenen kudeaketaren araubidearen tartearekin. Baldintza horrek berekin ekarri du guztiz egotzi zaiola Udalaren aurrekontuari. Informazioa termino bateratuetan ez nahasteaz gainera, gure ustez memorian islatuta geratu beharko litzateke, banakako betearazpenen egoera-orriei begira.

- Amaierako ziurtagiriaren ehuneko 5,1eko aldaketa, Udalari eta Uren Batzarraren proiektuaren atalari dagokiona, bat dator hasierako proiektuan aurreikusitako obra-unitate berriak sartu izanarekin. Kasuko kontraesaneko prezioei dagokien berariazko onespenearekin batera, zeina kontratistarekin formalizatu baita, zegokion alde aurretiko kontratu-aldaketak agertu behar zuen³.

Queiles Ibaiaren estaldura konpontzea eta amaitzea

Obra honen lehenengo fasea 2009an adjudikatu zen hasiera batean. Kontratistari egoztekoak zaizkion hainbat ez-betetzeren ondorioz, kontratua Osoko Bilkurak hala erabakita ebatzi zen, 2013ko abenduan, eta, halaber, fidantza bahitu zen: 535.000 euro, hain zuzen. Errekurtsoa aurkeztu zen kontratuaren amaitzearen aurka, eta 2016ko urtarrilaren 27ko apelazio-epaiaren bitartez, Udalaren erabakia berretsi zen. Irmotasun administratibo horrek esan nahi du lizitazio berri bat hasiko dela, proiektu berri baten arabera; proiektu horrek, izan ere, zenbait aldaketa dauzka jatorrizkoarekin alderatuta.

Obra berri hori egitea atal berri batzuetara eta aurrez amaitutako kontratuaren amaierara zabaltzen da.

Espedientea 821.106 euroko balio zenbatetsiarekin lizitatu zen, BEZik gabe, eta 456.540 euroan adjudikatu zen, BEZik gabe; horrek ehuneko 44,4ko beherapena dakar. Eskaintza anormalki baxutzat joenez, prozedurazko eta formazko bermeak ezarri dira hura segurtatzeko, obraren

³ 16. alegazioaren ondorioz aldatutako paragrafoa.

bideragarritasun tekniko eta finantzarioari dagokionez, 6/2006 eta 6/1990 foru legeetan ezarritako terminoetan.

Honako hauek dira betearaztearen datuak, BEZik gabe:

Adjudikazioaren zenbatekoa	2016ko ziurtagiriak	2017ko ziurtagiriak	Ziurtatutakoa, guztira
456.540	402.027	54.457	456.484

Obraren betearazpenaren amaiera 2016ko urriaren amaierarako aurreikusita bazegoen ere, epea 2017ko otsailera arte zabaldu zen formalki, Udalari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik – arrazoi horiek proiekturako behin betiko konponbide jakin batzuetan dautza–, eta horretarako kontraesanezko prezioak onetsi ziren, behar den bezala.

Amaierako ziurtagiria adjudikazio-zenbatekoari eta aurrez iruzkindu ditugun aldaketei egokitu zaizkie. Amaierako ziurtagiriaren aldaketa ez da nabarmena.

IV.10. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 38,21 milioioak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatik diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko bat, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean, nabarmentzekoak dira tributuen bidezko diru-sarrerak (22,99 milioi euro) bai eta transferentzia arruntak ere (12.81 milioi euro).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzeko-maila ehuneko 98koa izan da.

2015arekin alderatuta, aitortutako eskubideek 896.789 euro egin dute behera, eta ehuneko bi egiten dute. Honelaxe xehakatzen dira diru-sarrerak:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2016/15
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	12.602.759	12.816.081	2
2. Zeharkako zergak	801.265	655.024	-18
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.992.689	9.524.137	6
4. Transferentzia arruntak	12.008.347	12.819.226	7
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	2.001.834	2.180.164	9
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	36.406.894	37.994.632	4
6. Inbertsioen besterentzea	0		-
7. Kapital-transferentziak	0	215.472	-
Kapitaleko diru-sarrerak	0	215.472	-
8. Finantza-aktiboak	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	2.700.000	0	-100
Diru-sarrera finantzarioak	2.700.000	0	-100
Diru-sarrerak, guztira	39.106.893	38.210.104	-2

2015arekin alderatuta, nabarmentzekoa da diru-sarrera arrunten eta kapitaleko diru-sarreraren multzoak gora egin duela, eta behera, berriz, diru-sarrera finantzarioek. Horren ondorioz, berriz ere testuinguruan jarri behar izan da azken finantzaketa-iturri hori, aurreko ekitaldian egindako eragiketa finantzarioen aurrez aipatutako apartekotasunarengatik, datuen homogeneotasuna kontrastatze aldera.

Zergen ikuspuntutik, aipatzekoa da zeharkako zergek behera egin dutela zuzeneko zergen aldean; horixe da, izan ere, behera egiten duen finantzaketa-iturri bakarra, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2016/2015
	2015	2016	
Lurraren kontribuzioa	8.282.946	8.274.384	0
Ibilgailuak	1.783.956	1.808.981	1
Lurren balio-gehikuntza	840.380	1.041.020	24
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1.695.388	1.691.609	0
Luxu-zergak	88	88	0
EIOZa	801.265	655.024	-18
Guztira	13.404.023	13.471.105	1

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,389	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,4-2,9	2 eta 3,8 bitarte
Zerga-tasa	16,22	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4	2 - 5

Diru-sarreraren hurrengo partiden lagin bat fiskalizatu dugu:

Udala

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak
	2016
Lurraren kontribuzioa	8.274.384
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	1.808.981
Hiri-lurren balio-gehikuntza	1.041.020
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1.691.609
EIOZa	655.024
Erabilera pribatiboko tasak, horidurak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu berezia dela eta	855.528
Eragiketa arruntengatiko eta itxitakoengatiko beste itzulketak batzuk	694.134
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	11.665.228
ORA aparkatze-zerbitzuaren emakida	691.889
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	215.472
Guztira	27.593.269

Uren Batzarra

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak
	2016
Zerbitzuak emateagatiko tasak, guztira	3.242.008

Lagina dela-eta egindako azterketatik, egiaztatu dugu, oro har, egoki izapidetzen eta kontabilizatzen direla, eta kobrantzaren kudeaketa ere egokia dela, bai borondatezko epean, bai exekutiboan ere.

Aurrekoa gorabehera, aipatu beharra dago atzerapena gertatu dela Nafarroako Gobernuak jardueraren hasiera dela-eta hobariak ordaintzerakoan, bai jarduera ekonomikoen gaineko zergan, bai eta lurren gaineko kontribuzioan ere, biak ere tokiko ogasunen esparruari dagozkionak, txosten hau egiteko datan honako datu hauetan ikus daitekeen bezala:

Laburpena

Ekitaldia	Nafarroako Gobernuari eskatutako hobarien zenbatekoak	Kobratutako zenbatekoak	2017ko uztailen kobratzeko dagoena
2012	51.136,85	48.909,14	2.227,71
2013	48.190,92	39.494,94	8.695,98
2014	44.819,56	37.134,58	7.684,98
2015	47.603,38	-	47.603,38
2016	43.830,95	-	43.830,95
Hobari fiskalak, guztira	235.581,66	125.538,66	110.043,00

2012tik 2014ra doazen ekitaldiei dagozkien onura fiskalak partzialki kobratu ziren 2016ko ekitaldian. Aipatutako ekitaldietatik ordaintzeko dagoen zorra gehi 2015eko eta 2016ko ekitaldiei dagozkien onurak oraindik ere kobratzeko daude 2017ko uztailen.

IV.11. HIRIGINTZA

Tuterako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horri atxikita honako pertsona hauek daude, plantilla organikoaren arabera: bi arkitekto, arkitekto tekniko bat (lanpostu hutsik dago), zuzenbideko lizentziatu bat (lanpostua hutsik dago), bost administrari (2 lanpostu hutsik daude) eta obren zainzaile bat.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere obra-zuzendaritzako lanak eta proiektuetako oroitidazkiak idazteko lanak beti kanpoko profesionalak egiten dituzte.

Tuterako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen, eta 1996an haren eguneratze bat onetsi zen, testu bategin baten bitartez; horretan, planaren hainbat aldaketa jaso ziren.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko.

Udalak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko izapideak hasi zituen, eta 2006an Hiri Antolamendurako Planaren erredakzioa adjudikatu zuen. "Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua" izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onespina.

2016ko ekitaldian zehar, aldaketa puntualeko eta aipatutako planeamendua garatzeko hainbat tresna onetsi dira, bai eta Tuterako HAPNa berrikusteko lankidetzahitzarmenerako eskaera ere. 2017ko irailaren 1ean hitzarmena sinatu zen; bertan Nafarroako Gobernuaren finantzaketa bat ezartzen da, planeamendurako aurreikusitako kostuaren ehuneko 80koa: 556.300 euro.

Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik, ez eta Udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; hala ere, ondare horretatik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten da.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*

- *Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko urriaren 26an.

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Tuterako Udaleko alkate-udalburu Eneko Larrarte Huguet jaunak, ikusita Kontuen Ganberak udal honen 2016ko ekitaldiari buruz egindako behin-behineko fiskalizazio-txostena, zeinari buruz entitate honek zenbait desadostasun edo zehaztapen egin nahi baititu, honako alegazio hauek aurkezten ditu.

ALEGAZIOAK

1. Montepiotik heldutako betebeharrak aktuariaren erregistroa. Finantza-auditoriako iritzia, a) atala: (8. orrialdea, II.1.a atala).

Txostenak dio ez daudela “erregistratuta funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak”. Iritzi hori, Kontuen Ganberak ekitaldi guztietan egindako fiskalizazio-txosten guztietan errepikatzen dena, Iruñeko eta Tafallako udalei buruzko fiskalizazio-txostenetan ere jasotzen da (udal horiek ere bai baitute montepio berekia), eta baita Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko txostenetan ere. Araudian, iritzi-artikuluetan, beste erakunde batzuetan... bilatu dugu, eta onartu beharra dago ez garela salbuespen hau konpontzeko gai. Txostenean jasotzen denez, 2013an (ezen ez, behin-behineko txostenak dioenez, 2003an) balorazio finantzario eta aktuarial zehatza egin zen, sistemari atxikitako pentsiodun eta funtzionario guztien datuak, bai eta balizko onuradunenak ere, kontuan hartuta. Txosten hori ganbera horren gomendioak betetzen saiatzeko egin zen, baina, antza denez, hori ez da aski izan. Ez dakigu ganberaren gomendioa nola bete; hortaz, ganberari eskertuko genioke adieraziko baligu, hala egin nahi baldin badu, zer egin behar dugun aldiro errepikatzen den salbuespen hori behingoz betetzeko.

2. Diruzaintzako gerakinaren azpibalorazioa. Finantza-auditoriako iritzia, b) atala: (8. orrialdea, II.1.b).

Behin-behineko txostenean esaten da “diruzaintzako gerakinari behar baino 641.201 euro gutxiagoko balioa eman” zaiola, “zeren eta ez baita bertan sartu desbideratze metatu negatiboa, 270/1998 Foru Dekretuaren 96.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz”. Tuterako Udalak kontu eman behar die Ogasun Ministerioari eta Nafarroako Gobernuari. Diruzaintza-gerakina kalkulatzeari buruzko estatuko araudiak ez du jasotzen finantzaketaren desbideratze negatiboak aintzat hartzea diruzaintza-gerakina zehaztean (toki kontabilitatearen eredu normalaren jarraibideak onesten dituen EHA 4041/2004 Aginduaren 83. erregelak). Araudi horrek behartzen du bi magnitude ezberdin ematera (bere inkoherentziagatik baztertu da aukera hori) ala bi kalkulu-sistematik bat aukeratzeagatik. Bi aukera horien alde onak eta txarrak aztertuta, Udalak araubide erkidean indarrean dagoena aplikatzea erabaki zuen. Erabaki hori hartzeko honako hauek hartu ziren kontuan batik bat:

– Likidazio-espeditzea Ogasun Ministerioari igortzeko plataformak ez du jasotzen, noski, finantzaketaren desbideratze negatiboengatik doikuntza.

– Nafarroako toki entitateen kontuak, Estatuko gainontzekoekin batera, toki sektorearen datuak osatzeko erantzen dira, eta horrenbestez irizpide normalizatuera doitu behar dira. Hartara, Nafarroako Gobernuak hasia da foru araudia aldatzen, araudi erkidean indarrean dagoenari egokitutako aurrekontu-egitura bat ezarri baitu.

– Diruzaintza-gerakinaren emaitzak ondorioak ditu Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa aplikatzean; logikoa den bezala, estatuko araudian ezarritako kalkuluetan oinarrituta daude.

– Zuhurtzia-irizpideari jarraikiz, hobe da diruzaintza-gerakina ez handitzea; izan ere, diru-sarrera asmoez ari gara, ezen ez eskubide-likidazio batez. Iritzi hori, zeinarekin bat baikotuz, adituen zenbait iritzi-artikuluetan jasota ageri da (ikus, esate baterako, Auditoria Pública aldizkariaren 19. alea).

3. Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoaren egoera-orri bateratua sartzeari. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.2 azpiatala, Alderdi orokorrak: (17. orrialdea, lehenengo paragrafoa).

Auzitan jartzen da Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoa egoera-orri bateratua sartzeari. Horri dagokionez, gure harridura adierazi behar dugu gutxienez ere. Enpresa-entitate publikoa eratu ostean likidazioa egin zen lehendabiziko ekitaldian, ez zituen jaso bere kontuak egoera-orri bateratuetan, zuzenean hori zelakoan, eta Kontuen Ganbera izan zen bere fiskalizazio-txostenean hori egin zedin gomendatu zuena (2010eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txosteneko 18. orrialdea). Hurrengo ekitaldian, gomendio hori aintzat hartuta, enpresa-entitate publikoaren kontuak egoera-orri bateratua jaso ziren, eta

beste horrenbeste egin da hurrengo ekitaldi guztietan ere (horiei guztiei buruzko auditoriak egin dira, inolako eragozpenik gabe). Jakina, enpresa-entitate publikoak bere kontabilitatearen esparruan ez dauzka beharrezkoak diren dokumentuak, eta, hori dela-eta, bere kontuen "itzulpen" lana egin behar du bateratzerako inarri izanen diren egoera-orriak taxutzeko. Hori bera da Kontuen Ganberaren txosteneko 4. orrian jasota ageri dena.

Halere, gure ustez, enpresa-entitate publikoaren datuak bateratu egin behar dira: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea ez da aldatu enpresa-entitate publikoak berariaz jasotzeko, halandaze Nafarroako toki araubidea gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen xedapen iragankor baka-rean jasotzen den araubide iragankorraren mende gaude; alegia, Nafarroako toki ogasunak arautzen dituen legerian tokiko enpresa-entitate publikoetarako irizpide bereziak zehazten ez diren bitartean, toki entitatearen partaidetza osoa duten merkataritza-sozietateei aplikatzekoak zaizkien arauak aplikatuko zaizkie haiei ere. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 194.c artikulutik ondorioztatzen da toki entitatearen aurrekontu orokor bakarrean jaso behar direla enpresa-entitate publikoaren gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenen egoera-orriak, zeren eta merkataritza-sozietateen gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenen egoera-orriak jaso beharko baitira, baldin eta toki entitatearena bada sozieta-tearen kapitala oso-osorik. Geroago, 199.1 artikulua indarrez, aurrekontu orokorraren espedientean eranskin gisa jaso behar da "entitate beraren aurrekontuaren eta horren erakunde autonomo eta merka-taritzako elkartearen aurrekontu eta aurreikuspen egoeren egoera-orri bateratua, baldin eta sozietatearen kapitalaren titular bakarra toki entitatea bada" –eta, horrenbestez, enpresa-entitate publikoaren egoera-orriak ere bai–, eta urteroko jarduketa-, inbertsio- eta finantzaketa-programak. Beraz, gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenen egoera-orriak "kontsignaziokoak" –jatorrizko toki entitatean aplikatutako egitu-rarekin– bihurtzearen asmo bakarra da aurrekontu-datu bateratuak aurkeztu ahal izatea.

4. Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoarentzako gomendioa. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.2 azpiatala, Alderdi orokorrak: (17. orrialdea) bigarren eta azken paragrafoak.

Enpresa-entitate publikoa eratzeko erabakia hartu zen txosten juridiko bat eta txosten fiskal bat egin ondotik, entitatea eratzeko zioetan oinarri izan zirenak. Gure ustez, hasiera batean, enpresa-entitate publikoa behar bezala eratuta dago, bere xedeak betetzeko. Halere, gomendioa onartzen dugu, eta aztertu egingen dugu zerbitzua emateko modu hori mantendu ala ez.

5. Gainbalaratutako desbideratze metatu negatiboa. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.2 azpiatala, Alderdi orokorrak: (17. orrialdea, bosgarren paragrafoa)

Txostenak honako hau dio: "Aurrekontu-emaizta behar baino 22.305 euro gehiago dago balora-tuta, aipatutako zenbatekoa duen desbideratze metatu negatiboa jasotzearen ondorioz". Kontuen espe-dientean ez da jasota ageri diru-kopuru horretako desbideratze metatu negatiborik egon denik, halan-daze ez dakigu zeri buruz ari den. Antza denez, auditorearen azalpenen arabera, Huertas Mayoresko bidea egokitzeko obren proiektuaren kostuaren ustezko desbideratze heldu da. Ezin gara iritzi horre-kin ados egon. Lehenik eta behin, finantzaketa-desbideratzeak –bai positiboak, bai negatiboak– aurre-kontu-emaiztan kontuan hartu behar dira baldin eta likidatutako ekitaldian egin badira gastuak edo diru-sarrerak. Proiektu hori 2007ko ekitaldian aitortu eta ordaindu zen; beraz, ez dago zer doitu 2016ko aurrekontuan. Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak 2016ko uztailaren 8an sinatutako hitzarmeneko hirugarren puntuan ezarritakotik heldu da Nafarroako Gobernuak obra horien finantzake-tan egindako ekarpena, eta hori da, hain zuzen ere, ustezko finantzaketa-desbideratzeak justifikatzen dituen oinarria. Udalak zenbatetsitako datuen egiazkotasuna baieztatzera dator Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 217/2017 Ebazpenaren bidez ordaindutako diru-laguntzaren likidazioa.

6. Bilketa zaileko eskubideak ezartzeko irizpideak. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.2 azpiatala, Alderdi orokorrak: (17. eta 18. orrialdeak),

Txostenean esaten da erakunde autonomoak "araudian ezarritakoaz bestelako irizpide bat" era-biltzen duela bilketa zaileko eskubideak zenbatesteko. Irizpide horren eragina oso handia ez izateaz gain, uste dugu bilketa zaileko eskubideak kalkulatzeko modu hau jasota datorrela 270/1998 Foru De-kretuan ezarritako aukeren artean. Uren Batzordeak baliatutako kalkulu-sistema beti izan da bera, eta ez Nafarroako Gobernuak ez Kontuen Ganberak ez dute inoiz eragozpenik jarri.

7. Alkateak eta kontu-hartzaileak sinatutako kontu bateratuen txostena. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.2 azpiatala, Alderdi orokorrak: (17 §7 orrialdea)

Kontuen Ganberaren testutik ondoriozta daiteke Udalak bere kontuetan dokumentu bakar bat egiten duela, alkateak eta kontu-hartzaileak sinatua, nahiz eta araudiak ezartzen duen bi dokumentu direla, “bakoitza bere edukiarekin eta irismenarekin”. Alde batetik, argi utzi nahi dugu kontu-hartzailearen txostena egin dagoela eta dokumentu berezitu gisa ageri dela espedientean. Beste alde batetik, Urteko Kontu Bateratuen Txostena (edo Memoria) Kontuen Ganberak berak onetsitako irizpide eta edukien arabera egin ohi da orain dela zenbait ekitalditik hona. Txosten honetan erabaki zen auzi tekniko ugari sartzea, eta horri zor zaio kontu-hartzailearen sinadura ere agertzea. Ez dugu ulertzen horrenbeste urte eta gero eragozpenak jartzea inguruabar horri, zeina erraz asko konponduko bailitzateke kontu-hartzailearen sinadura dokumentutik ezabatuta.

8. Interesen sortzapenaren ondoriozko doitzeen aldea IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.3 azpiatala, Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (19. orrialdea, 4Q atala).

Txostenak dion bezala, egia da interesen sortzapeneko doitzetik egin ez dela finantzaketa ahalmena/beharrizanak kalkulatzeko. Arrazoiak bi izan dira. Alde batetik, doitzearen kuantifikazio zaila –izan ere, Udalaren zorpetzearen parte bat diruzaintza-gerakinak ezartzeko erabiltzen diren kreditu-kontuetan dago formalizatuta–; eta beste alde batetik, doitzearen eragin txikia. Edozein modutan, Kontuen Ganberak egindako estimazioa zuzena den zalantza egiten dugu.

9. Gastu-arauaren kalkuluko doitzeak. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.3 azpiatala, Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (19. orrialdea, SQ).

Txostenean esaten da 1.037.119 euroko doitzeak falta direla gastu-arauaren kalkuluan, funts finalistekin finantzatutako gastu guztiak aintzat ez hartzeagatik. Ezin gara interpretazio horrekin ados egon. Gastu-arauak muga bat ezartzen du ekitaldi batetik besterako gastua handitzeko. Aurreko ekitaldiko gastu ez-finantzarioa ezartzean, Udalak aintzat hartu ditu zerbitzuengatik eta jarduketengatik gastu jada bateratuak, horien finantzaketa albo batera utzita, halako moduan non, aipatutako doitzeak eginez gero, emaitza absurdoak lortuko bailirateke. Ondorio baliadunetara iritsi ahal izateko, gastu-araua aplikatu den ekitaldi guztietako abiapuntua berrikusi beharko litzateke, eta berriro egin beharko lirateke kalkulua araua bete ote den egiaztatuz. Udalak irizpide bera baliatu du ekitaldi guztietan, eta ez Ogasun Ministerioak, ez Nafarroako Gobernuak, ez Kontuen Ganberak ez dute inolako eragozpenik jarri beren txostenetan. Edozein kasutan, garbi utzi nahi dugu ondorioak berberak izanen liratekeela prozedura bat nahiz bestea erabilia.

10. Eraginkortasun- eta finantza-kontrola. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.5 azpiatala, Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (20. orrialdea)

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 249.2 artikulua honako hau zioen hasiera batean: “Erregelamendu bidez garatuko dira funtzio horien irismena eta edukia (barne-kontrola eta -fiskalizazioa, finantzen eta aurrekontuen arloko kudeaketa eta aholkularitza, kontabilitatea)”. Erregelamendu bidezko garapen hori ez zen sekula ere egin.

Kontu-hartzailearen arloko eginkizun horiek martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen bidez aldatu ziren; izan ere, horren bidez aldatu zen 6/1990 Foru Legearen VII. titulua, eta 240. eta 240 bis artikuluetan arautu ziren kontu-hartzailezako, finantza-kontrolako eta eraginkortasunaren kontrolako eginkizunak. Horietan soilik ezartzen dira funtzio horien xedeak, baina ez da erregelamendu bidezko garapenik egin, estatuak orain dela gutxi egin duenaren kontra, Toki sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa ezartzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren bidez hain zuzen ere, zeina 2018ko uztailaren 1ean sartuko baita indarrean, eta zeinaren berritasunik handiena baita finantza-kontrolaren plangintza egoki bat nahitaez egin beharra.

Fiskalizazio mugatua ezarri beharra dago, bai eta Nafarroako toki entitate guztiei egokitutako barne-kontrolako prozesura homogeneo eta estandarizatu bat ere. Kontu-hartzailezako lan-zama handia dauka, are handiagoa dena udal-sektore osoari eragiten dion Aurrekontu-egonkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren aplikazioz dagozkion betebeharrak aintzat hartzen badira. Eta horri gehitu behar zaio lanpostu berriak betetzeko ezintasuna. Horregatik guztiagatik, gure ustez:

1. Erregelamendu bidez garatu behar dira finantza-kontrolako eta eraginkortasunaren kontrolako eginkizunak –horiek dira Kontuen Ganberak aipatzen dituenak–, bai eta –hau guk gaineratzen dugu– foru legediak eta estatuko legediak esleitutakoak ere, 6/1990 Foru Legeak bere garaian aurrekusi zuen moduan, nahiz eta hogeita bat urtean ez zen halakorik egin.

2. Eraginkortasunaren eta, batez ere, efizientiaren kontrol bat egin ahal izateko, beharrezkoa da helburuen plan bat egitea aldez aurretik, kontrol horiek konparaziozkoak baitira. Plan horren edukia ezin da udal bakoitzaren esku egon. Bestalde, ezin dugu ahantzi gero eta estatistika eta mota orotako datu gehiago eman behar zaizkiela Nafarroako Gobernuari eta Estatuari; hortaz, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidezko garapena egiteko beste arrazoi bat gehiago da arestian aipatu dugun prozedura homogeneo eta estandarizatua.

11. Informazio batzordeko idazkarien lanaldiaren luzapeneko osagarria. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.6 azpiatala, Langileak: (21. orrialdea, 4. eta 22. §).

Informazio batzordeetako idazkarien lanaldiaren luzapeneko osagarria % 5ekoa da informazio batzorde iraunkorretan eginkizun hori duten sei funtzionarioen kasuan eta Uren Batzordean kontu-hartzailatza eginkizunak dituenaren kasuan. Informazio batzordeak batzordeburuak deialdia egiten duenean egiten dira, eta goizez –funtzionarioen lanorduetan– nahiz arratsaldez –lanordu horietatik kanpo– egin daitezke. Azkenaldian, salbu eta bilkurak arratsaldez egiten dituen Uren Batzordea, informazio batzordeak goizez egin ohi dira, baina hori noiznahi alda daiteke, eta berriro ere, orain dela urte gutxi batzuk egiten zen moduan, arratsaldez egin. Osagarri horrek idazkari horiek bete beharreko beste eginkizunen ondoriozko aparteko lana ere ordaintzeko da (aktak, lekualdatzeak, batzordeen presta-lanak...), lan hori ohiko lanalditik kanpo egin behar izatea gerta daitekeelako.

12. Plantillaren behin-behinekotasuna. IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.6 azpiatala, Langileak: (19. orrialdea, S§).

Plantillaren behin-behinekotasuna handia dela onartuta adierazi behar dugu 2012tik hona oso mugatuta dagoela, urteroko aurrekontuen legeak direla medio, lanpostu hutsak betetzeko aukera, eta horrek ia ezerezean utzi du Udalaren ahalmena, eta ez soilik lanpostu hutsak betetzeko. Behin betiko fiskalizazio-txostenak horren berri eman beharko luke behinik behin.

13. Zerbitzuak ordaintzea, kontratua amaituta dagoela. IV. atala, Oharrak eta gomendioak; IV.7 azpiatala, Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (23. part.)

Prozedura gomendatzen da kontratuak amaituta dituzten zerbitzuetako gastuak izapidetzeko. Ez dakigu berriazko zer izapide dagoen Udalaren aberaste bidegabea ekidite aldera emandako zerbitzu bat ordaindu beharra aitortzeko. Egin behar dena da jasotako zerbitzuak ordaindu eta, hori bai, kontratazio berriak egiteko espedienteak izapidetu.

Kontratu-euskarria bukaturik duten zerbitzuen baldintza-orri guztiek jada arautzen dute zerbitzuaren jarraitutasuna harik eta berri bat esleitzen den arte; hortaz, gure ustez ez da inolako prozedura berriazkorik behar, egon badagoelako prozedura bat 2016ko aurrekontua betetzeko oinarrietan gastu horiek onesten dituen (15. oinarritik 27. oinarriara bitartekoak, biak barne).

14. Zezen ikuskizunen kudeaketarako kontzesio-kontratua. IV. atala, Oharrak eta gomendioak; IV.7 azpiatala. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (23. part.)

Txostenean adierazten da kontratuaren araubide ekonomikoaren planteamendua falta dela espedienteetan, zeinen arabera egokitu behar baitziren eskaintzak. Ez gatoz bat baieztapen horrekin. Gure ustez, kontratuaren planteamendu ekonomikoa oso argi dago baldintza-orrian. Udalak diru-kopuru bat jartzen du, eta kontratistak hainbat ikuskizun antolatu behar ditu doan (entzierroak eta txuliaketak), eta beste bi ordainpekoak, zezenen munduan “munta txikikotzat” hartzen diren horietakoak (errekortegileen lehiaketak, suhartasun-erakustaldiak, uztai-lehiaketa, Gran Prix). Horietan, esleipen-hartzailearentzat izanen da etekina. Betebeharrak eta eskubideak baldintza-orriak ageri dira jasota.

Orobat esaten da hobekuntza-araubidean kontzesio-kontratuaren funtsezko alderdi bat jaso dela, balorazio nagusiaren xede izan beharko lukeena. Oraingoan ere, ez gatoz bat auditorearen iritziarekin. Udalak apustu berritzaile bat egin zuen 2016rako, aurreko ekitaldiekin alderatuta; izan ere, esleipen-hartzaileari ikuskizun nagusietarako diru-ekarpenik ez egitea erabaki zuen (zezenketak, burtziketak eta pikatzaileekiko zekorketak). Kontratistak eman beharreko prestazioak zehaztu zituen, arestiko atalean adierazi den bezala, eta hobekuntzetarako 20 puntu utzi zituen: 10 puntu zezen ikuskizun gehiago egiteko eta 10 puntu zenbait entitateri eta pertsona-talderi prezioetan hobariak egiteko.

Hobekuntzen atalak % 20ko balio ponderatua dauka lehiaketan; dena den, ehuneko horretan oso eztabaidagarria da prezioen hobariak hobekuntza bat izatea Udalak exigitutako proposamenari begira.

Atal hau kontratistaren eskaintzaren parte izanen litzateke, eta ez du baldintza-orrian exigitutako prestaziorik hobetzen.

Baldintza-orriaren hobekuntza bakarra da baldintza-orrian aurreikusten ez diren zezen ikuskizun berrien proposamena. Honek % 10eko balioa duenez, ez dugu uste hain funtsezkoa eta erabakigarria denik.

Bestalde, exigitutako baldintza-orriak exigitutako gutxieneko zerbitzuak antolatzeko moduak 50 puntuko ponderazioa du; horietatik 40 ordainpeko ikuskizunen kalitateari dagozkio soilik, halandaze ez dugu ulertzen auditoriako txostenak zer dela-eta esaten duen ez zaiola funtsezko tratamendurik ematen.

15. Aurrekontu-aldaketa, diru-sarreretarako konpromiso irmorik gabe. IV, atala, Oharrak eta gomendioak; IV.9 azpiatala. Inbertsioak (28. part.).

Ez gaude ados esaten den honako honekin: “Udalak hasiera batean onetsitako aurrekontu-aldaketa egin beharko zen aurrez ekarpena egiteko konpromiso irmo bat oinarri hartuta, tokiko aurrekontuaren esparruaren baldintzetan”. Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 40.5 artikulua ezartzen duenez, “Jatorri desberdinetako ekarpenekin finantzatu diren kontratuetan, espedientearen egiaztatutako beharko dira horien guztien eskuragarritasuna (...)”. Guk dakigula, ez da inongo xedapenetan ezartzen baldintza hori aurrekontu-aldaketa egiten den unean bete behar denik, eta kontuan hartu behar da, halaber, aurrekontu-izendapen bat aurreikuspen bat besterik ez dela, halako moduan non Udalak une horretan ez duen inolako betekizunik bere gain hartzen.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuak ekarpen bat egiteko konpromiso bat zeukan. Ikus ditzagun datak:

- Udalaren Osoko Bilkurak maiatzaren 30ean onetsi zuen aurrekontu-aldaketa.
- Nafarroako Gobernuak maiatzaren 18ko bilkuran onetsi zuen foru lege proiektua.
- Ekainaren 9ko 7/2016 Foru Legearen bidez onetsi zen kasuko kreditu berezia.
- Toki Administrazioako zuzendari nagusiaren uztailaren 9ko 316/2016 Ebazpenaren bidez eman zen obrak egiteko diru-laguntza.
- Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 15ean hartutako erabakiaren bidez esleitu ziren obrak.

Gure ustez, ez zen inolako gorabeherarik gertatu espedientearen izapidetzean, eta horri gehitu behar zaio ezin izan zirela obrak egiteko epeak bete, edo ezin izan zirela obrak egin, edo kasuko diru-laguntza kobratzeko arrisku handia egon izan zela baldin eta Kontuen Ganberak planteatzen duen konpromiso irmoa izan arte itxoin izan balitz. Berriz diogu ez gaudela ados.

16. Huertas Mayoresko bideko obren kontratua aldatzeagatik fidantzak IV. atala, Oharrak eta gomendioak, IV.79 azpiatala, Inbertsioak (29. part.)

Ez gaude ados kontratu horren bermea birdoitzeko behararekin. Kontratu horrek bazeukan behin betiko berme gisa esleipen-prezioaren % 50a, eta aldaketa horiek egin zirenean jada onetsirik zeuden aldatutako % 5,1 baino askoz ere diru-kopuru handiagoko ziurtagiriak.

Gomendatutako bermea Udalaren eskura zegoen jada.

Hori guztia dela-eta

ESKATZEN DUT

Aurkeztutat eman dadin alegazio-idazki hau, eta, egin beharreko egiaztapen guztiak egin ondoren –gure laguntza osoa eskaintzen dugu horretarako–, alegaziook onartuak izan daitezzen, eta hartara Udal honen 2016ko auditoriaren behin-behineko txostena alda dadin, egindako oharrak aintzat hartuta.

Tuteran, 2017ko urriaren 20an

Alkatea: Eneko Larrarte Huguet

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN- DAKO ERANTZUNA

Tuterako alkate Eneko Larrarte Huguete jaunak aurkeztutako alegazioak aztertuta, fiskalizazio-txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen; hori dela eta, txostenari erantsi zaizkio eta behin-behineko txostena behin betikotzat jo dugu.

Hala eta guztiz ere, Ganbera honek honako zehaztapenak egin nahi ditu aurreko alegazio horietako batzuk direla eta.

1. **Montepiotik heldutako betebeharrak aktuariaren erregistroa.** Montepiotik heldutako betebeharrak aktuariaren erregistroko dira langileen ordainsarietarako horniduren kontu baten egoera-balantzeko pasiboan; kontu hori ordaindu eta kargatuko da kasuko erregistro- eta balorazio-arauetan jasotako arazoengatik.
2. **Diruzaintzako gerakinaren azpi-balorazioa.** Udalaren 2016ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa, "2016ko ekitaldiko Kontu Bateratuen txostena" dokumentuaren 10. orrialdean ageri den bezala, Nafarroako tokiko aurrekontuaren esparruaren arabera egiten da. Esparru hori honako xedapen honek osatuta dago, besteak beste: irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea garatzen duena gastu publikoari eta aurrekontuei dagokienez. Dekretu horrek ezartzen du diruzaintzako gerakinaren kalkuluan kontuan hartu beharko direla finantzaketa atxikia duten gastuen izaera negatiboko finantzaketa-desbideratze metatuak. Tuterako Udalaren kontu orokorra nahitaez formulatu beharko da Foru Komunitateko arau-esparruan xedatutakoaren arabera, eta, horrenbestez, Foru Komunitateko toki entitateen kontu orokorra osatzen duen aurrekontuaren likidazio-espeditentzaren atala den diruzaintzako gerakinak ikur positiboarekin jaso beharko ditu metatutako finantzaketa-desbideratze negatiboak, zeren eta haiek sortu dituen finantzaketa ez baitzen geroko ekitaldietako aurrekontuetan jaso. Arau hori bete ez den neurrian, diruzaintzako gerakina 641.201 euroan azpi-baloratuta dago.
3. **Castel Ruiz Enpresa-entitate Publikoa egoera-orri bateratuan sartzea.** Toki Ogasunei buruzko Foru legearen 199. artikuluan aipamenak bigarren apartatua ahazten du, non honako hau ezartzen baita:

"Eranskin horien prestaketari eta edukiari dagozkion berezitasunak erregelamendu bidez gartuko dira"

Arau horren erregelamendu bidezko garapena egin gabe dago; horrenbestez, gure ustez aplikatzekoa da 270/1998 Foru Dekretuaren 85. artikuluan aurreikusitakoa, aurrekontuaren likidazioari dagokionez; bada, hori soilik Udalarentzat eta erakunde autonomoentzat jasota dago, alde batera utzita merkataritza-sozietateak eta, horrenbestez, enpresa-entitate publikoak. Kontsiderazio hori, horrenbestez, jasota dago soil-soilik aurrekontu mugatzailea duten entitateentzat, kanpo utzita, beren izaeratik beragatik, enpresa-entitate publikoak, zeinek, merkataritza-sozietateak bezala, kontabilitate-esparru finantzario pribatua baitute, eta, txosten honetan argudiatzen den bezala, ez baitute aurrekontu-likidazioko egoera-orririk.

4. **Gainbaloratutako desbideratze metatu negatiboa.** Aurrekontu-eramaile soilik ekitaldiari egoztekoak zaizkion finantzaketa-desbideratzeengatik doitu beharra dago. Alegazioan esaten den bezala, "...finantzaketaren desbideratzeak, negatiboak zein positiboak, aurrekontu-eramailean jaso behar dira, baldin eta gastuak edo diru-sarrerak likidatzen den ekitaldian egin badira. Aipatutako proiektua 2007ko ekitaldian aitortu eta ordaindu zen; horrenbestez, 2016ko ekitaldiko eramailean ez dago doitu beharreko ezer"; horrenbestez, ezin da inongo desbideratze negatibo metaturik jaso, aurreko ekitaldietako aipatutako gastua dela eta.
5. **Alkateak eta kontu-hartzaileak sinatutako kontu bateratuen txostena.** Ganbera honek inoiz ere ez du aipatu kontu-hartzaileak inongo ez-betetzerik egin duenik bere txostena kontu orokorraren espeditentzaren sartzekoan; dena den, kontu orokorrean, lehendakariak sinatutako oroitzaia ere jaso behar du, hura betetzeari buruzkoa.

6. **Interesen sortzapenaren ondoriozko doitzeen aldea.** Ganbera honek berretsi beharra dauka txostenak islatzen duen iruzkina, zeinaren arabera aipatutako doitzea, araudian aipatutakoaz beste, ez baitu Kontu-hartzaitzak egin. Udalak interesen ondoriozko gastua ez kuantifikatzeak eragozten du horien eragina eta Ganberak egindako zenbatespena ezagutzea.
7. **Gastu-arauaren kalkuluko doitzeak.** Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan gastu-araua dela-eta egiten den kalkulari buruzko kontsiderazioak bere aplikazio praktikoa izan du Nafarroako Gobernuak egindako gidaliburuetan, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiaren irizpideekin bat. Horrenbestez, funts finalistak dituzten gastuak doitu egin behar dira.
8. **Eraginkortasunaren kontrola eta kontrol finantzarioa.** Ganbera honek besterik gabe adierazi du ez dela erabili araudian eta aurrekontuaren betearazpen-oinarrietan beraietan eskatutako barne-kontrolleko modalitateak aplikatu. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezartzen duen bezala, toki entitateetan barne kontrolerako eginkizunak beteiko dira, entitate horien, horien erakunde autonomoen eta horien menpeko merkataritzako sozietateen kudeaketa ekonomikoari dagokionean; barne kontrol horren barranean sartuko dira kontu-hartzaitzaren eginkizuna eta finantzak eta eraginkortasuna kontrolatzearena. Betebehar hori jasota dago, halaber, Tuterako Udalaren aurrekontuko betearazpen-oinarrietan. Kontrol finantzarioaren eta eraginkortasunaren kontrolaren hedadura eta eraginak lege horren 249. eta 250. artikuluetan zehaztuta daude.
9. **Batzordeko idazkarien lanaldiaren luzapeneko osagarria.** Fiskalizatutako ekitaldian, aztertutako dokumentazioan jasota dagoenaren arabera, osagarri horrekin lanaldian egindako jarduera bat ordaintzen da, oro har ezarritakoaz gainekoa ez dena; horrenbestez, ez da koherentea aipatutako osagarria ordainduz bilatzen den xedearekin.
10. **Zerbitzuak amaitutako kontratuekin ordaintzea.** Kontratuak amaituta dituzten zerbitzuetako gastuak izapidetzeko prozedurari buruz txostenean ageri diren oharrak aberaste bidegabearen teoriar oinarrituta eman diren zerbitzuen aitortpenari dagozkio, ez 15.etik 27.era doazen oinarrien aurrekontuaren betearazpen-prozedurari, zeina Ganbera honek ez baitu zalantzan jarri inoiz ere. Horrenbestez, espediente bat izapidetu beharra dago non, kontratuko irregulartasuna aitortuta, hura ordaindu beharko den, hain zuzen ere lege-euskarririk ez duten zerbitzu batzuk ez ordaintzekotan Udalari gertatuko litzaiokeen aberaste bidegabea saihesteko. Udalaren bete-beharra da lizitazio berriak egitea, kontratazioaren xede diren zerbitzuak emateari legezko estaldura egokia emanen diotenak, kontratazio publikoaren printzipio zuzentzaileak errespetatzearen: berdintasuna, diskriminazio eza eta lehia askea ez murriztea; izan ere, printzipio horiek urratu egin dira baldintza-orrietan klausula batzuk bai baitaude aukera ematen dutenak kontratuek legez aurreikusitakoez gorako epeak bideratzen dituztenak, behin kontratua amaituta.
11. **Zezen ikuskizunen kudeaketarako kontzesio-kontratua.** Kontratuen esparruan, kontzesio-kontratuaren funtsezko baldintza dira, Udalak horrela sailkatu baititu, zezen-ikuskizunen kudeaketarako kontzesio-kontratua, bideragarritasun-plana eta ustiaketa-proiektua, zeinak, horrenbestez, ez baitira hondarreko erara balioetsi behar. Baldintza-orrietan araututako kontratuaren araubide ekonomikoaren planteamenduak ez die erantzuten aipatutako funtsezko dokumentuei.
12. **Aurrekontu-aldaketa, diru-sarreretakoko konpromiso irmorik gabe.** Tokiko esparruan aurrekontuko diru-sarrerekin finantzatutako aurrekontu-aldaketen eraginkortasuna haien segurtasunetik heldu dira, dela diru-bilketa efektiboaren bidetik, dela ekarpenerako konpromiso irmo baten bitartez. Finantzaletaren jatorria Foru Komunitateko Administrazioaren kreditu berezi bat denez, ezin da haren bideragarritasuna segurtatu Parlamentuak kreditu bereziari buruzko kasuko foru legea onesten duen arte; legearen onespene hori, ordea, Udalak egindako aurrekontu-aldaketaren hasierako onspena eta gero gertatu zen, eta kontratuaren lizitazioa bera egin ondorenean. Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat onesteak finantzaletarako itxaropen batzuk sortzen baditu ere, ez du irmotasunik hartzen Nafarroako Parlamentuak erabakia behin betiko hartzen duen arte. Horixe adierazi zuen kontu-hartzaileak 2016ko maiatzaren 25eko txostenean, kontratazio-espedientearen lizitazioari buruz; izan ere, bertan aipatzen du kontra-

tuaren finantzaketa foru lege proiektu batean oinarritzen dela, eta hori ez dela behar besteko bermea lizitazio horri legezko estaldura emateko.

Amaitzeko, aipatu behar dugu 1. 6. eta 16. alegazioak ontzat eman direla, eta, horrenbestez, behin betiko txostenean jaso direla, hartan kasuko oin-oharren bitartez aipatzen den bezala.

Iruñean, 2017ko urriaren 26an.

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga